



**KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA,  
XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXJAUNAK KARATEKO ETA DIZIPLINA  
ELKARTUETAKO EUSKAL FEDERAZIOAREN 2017KO MARTXOAREN  
1EKO ERABAKIAREN KONTRA AURKEZTUTAKO ERREKURTSOAK EZ  
ONARTZEA ERABAKITZEN DUENA.**

---

**Espediente-zenbakiak: 28/2017 eta 31/2017**

**AURREKARIAK**

**Lehena.**- 2016. urtean egindako Karateko eta Diziiplina Elkartuetako Euskal Federazioaren (aurrerantzean, EKF) batzarreko, zuzendaritza-batzordeko eta lehendakaritzako kideak aukeratzeko hauteskunde-prozesuan zehar, Lehendakaritzarako hautagai bakarra M.C.M. jauna aldarrikatzea erabaki zuen Hauteskunde Batzardeak 2017ko martxoaren 1ean, «1. akta» deiturikoan zehazten den moduan.

**Bigarrena.**- 2017ko martxoaren 3an, xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunak errekurtsua aurkeztu zuen, Hauteskunde Batzardean, erabaki horren aurka. Bertan, hautagaitza inpugnatu zuen, Federazioaren lehendakaritzarako bateraezintasun-arrazoiak daudela alegatuz.

*«Idazki honen bitartez, M.C.M. jaunaren hautagaitza INPUGNATU nahi da, ikusi dugun moduan, hura Ortuellako Arte Martzialen lehendakaria eta UZTIAZ SAL enpresaren arduraduna delako, karatearen irakaskuntzara xedaturiko enpresa. Klub baten lehendakari-kargua ez da bateragarria EKFn lehendakari-karguarekin, betiere Euskadiko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 DEKRETUAREN Bateraezintasunei buruzko 116.2. artikuluari jarraiki.*



*Dena den, irabazi-asmorik gabeko klub baten lehendakari izateak ez du gehiegizko garrantzirik, baita Legeak Federazioaren lehendakariak gauzatu behar dituen eskuordetutako funtzio publikoekin bateraezina dela badio ere. Halere, bada oso garrantzitsua den zerbait, klubak merkataritza-enpresek erabiltzen dituzten tresnak izan baitaitezke, eskolak ematez gain, hark federazioak berak eskain ditzakeen zerbitzu berak ematen baititu. (117. artikulua. Debekuak) Horixe da, hain zuzen ere, federazio horren etengabeko gatazkaren arrazoia. Eta horixe da enpresariak federazioaren lehendakari izan nahi izatearen arrazoia. Iritzi hori partekatua da gainera. (DOK. 1). Gure sozietatean, enpresa-interesak dituzten pertsonak ezin dituzte funtzio publikoak bete interes komertzialak dituzten jarduera berean. Kirol esparruko jarduera komertzialean ere horrela izan beharko luke. Izan ere, federazio horietako bateko lehendakari izanik merkaturia kontrolatu eta abantaila ugari beregana daitezke, beste jarduera-mota batean izango ez lituzkeenak. Esan duguna ikusteko, hona hemen abantaila horietako batzuk:*

- *Beren enpresarentzako prestigioa eta lehiakortasun handiagoa lortzen dute, administrazioan eragina dutelako eta hari eskuordetutako zerbitzu publikoak eskaintzen dizkiotelako (influentzia-trafikoa).*
- *Administraziotik zuzenean jasotako informazio pribilegiatua lortzen dute. Merkatu-kuota handiagoa lortzen dute, ikastetxe edo kiroldegi bat federaziora irakasle bila joaten denean, lehendakariaren enpresa geratzen baita bezeroarekin.*
- *Karatean, ikastaroak eta titulazioak ematen dira, eta lehendakaria da horiek sinatzen dituenak. Gainerako irakaskuntza-jardueretan, egiaztagiriak emateaz arduratzen den erakundeak ez du norberarentzako maila altuagoko egiaztagiriak eta kategoriak jasotzen jarraitzen.*
- *Hark irakaskuntza-titulu ofizialak lortzeko arauak sor ditzake. Era berean, nahi bezala erabil ditzake homologazioak.*
- *Praktikak egin behar dituzten pertsonak erabil ditzake, praktikak bere enpresan egin ditzaten.*
- *Lehendakariak berak aukeratzen du Euskadi ordezkartuko duten kirolarien hautatzailea eta, beraz, eskolak bere enpresan jasotzen dituzten kirolariei arreta gehiago eskaintzea eska diezaiotke.*

*Hausnarketa bat baino ez da, baina honako hau ondoriozta dezakegu: federazioak modu harmonikoan funtzionatzea eta Legea betetzea nahi*



*badugu, interes komertzialak dituzten pertsonak eskuordetutako funtzio publikoak bete ez ditzatela saiatu behar dugu.*

*Eta hori gure federazioaren lehendakari-hautaketan aplikatu beharko genuke. Gure federazioaren hauteskundeetan, gure kirol-esparruan enpresa-interesak dituen hautagairik aurkez ez dezala eskatzen diogu TXOSTENGILEARI.*

*Hala eta guztiz ere, hautagaitza hori baimentzea erabakiko balitz, hura behar bezala justifika dezala eskatzen diogu, kirol arloan BATERAEZINTASUNAK saihets baitaitezke, gainerako jardueretan pentsaezina izango litzatekeena.»*

**Hirugarrena.**- 2017ko martxoaren 9an, eta Hauteskunde Batzordeak, errekurtsogileak berak adierazitakoaren arabera, aurreko paragrafoan adierazitako errekurtsuari erantzun ez diola ikusita, Euskal Karate Federazioaren lehendakari-izendapena inpugnatzen duen errekurtsoa aurkeztu dio Batzordeari, 2017ko martxoaren 7an, beste eskaera batzuekin batera.

*«Honako honen bidez, Eusko Jaurlaritzak esku hartzen duen EKFren HAUTESKUNDE BATZORDEAK nik egindako inpugnazioei kasu zipitzik ere egin ez diela jakinarazi nahi dizuet.*

*Lehenik eta behin, espediente informatibo bat ireki dadila eskatzen dizuet, KONTU-HARTZAILEAK nire erreklamazioei kasurik zergatik egiten ez dien zehazteko. Azter ezazue, mesedez, Eusko Jaurlaritzara (hauteskundeak kontrolatzeaz arduratzen den erakundea) bidali nituen idazketek zein ibilbide izan duten, hark HAUTESKUNDE BATZORDEARI entregatu ahal izateko.*

*Bestalde, Euskal Karate Federazioaren lehendakari-izendapena INPUGNATU dezazuela eskatzen dizuet, M.C.M. jaunarena alegia, eta HAUTESKUNDE BATZORDEKO KONTU-HARTZAILEARI egin nion eskaera berretsi nahi dut. Era berean, hark federazioaren lehendakari gisa bete behar dituen eskuordetutako funtzio publikoak gauzatzeko bateraezintasunak dituela errepikatu nahi dut.*

*Izan ere, federazioak sustatzen duen jarduera beraren enpresari eta lehendakari izanik, hark informazio pribilegiatua, administrazioaren begiramen berezia, bere enpresari laguntzeko aukera -federazioari informazioa eskatzen dioten erakundeekin*



*irakaskuntza-kontratuak eginez-, bere enpresako bezeroekiko tratu onuragarria eta abar bereganatuko lituzke, besteak beste, irabazi-asmoak izateagatik federazioan ez dauden beste enpresari batzuekin alderatuta.*

*BATERAEZINTASUNIK ez badago, ez gara izendapenaren aurka agertuko, baina arrazoi juridikoekin edo Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak sarbidea izan dezakeen administrazio eskudun batek igorritako txosten bidez justifika dadila eskatzen dizuegu.»*

**Laugarrena.-** Hauteskunde Batzordeak, 2017ko martxoaren 13an, Erabaki honen bigarren paragrafoan adierazitako errekurtsoa ebatzi zuen, eta errekurtsogileak aurkeztutako inpugnazioa ezestea erabaki zuen, honako arrazoi hauek direla eta:

*«LEHENA.- Ortuellako Arte Martzialen Klubeko lehendakari izatearen ustezko bateraezintasunari dagokionez, badirudi inputazio hori ez datorrela bat errealitatearekin, Batzarreko kide gisa zuen ordezkartza egiaztatzeko helburuarekin hautagaitzarekin batera aurkeztutako dokumentuan bertan argi eta garbi adierazten baitzen gaur egun nork gauzatzen dituzten Ortuellako Arte Martzialen Klubeko lehendakari- eta idazkari-karguak, eta M.C.M jauna horien artean zegoenez, ez da inolako bateraezintasunik gauzatu. Aurrez postu hori bete izanak ez du bateraezin egiten, hautatua izanez gero, momentu horretan hautatu beharko bailuke kargu bat edo bestea.*

*BIGARRENA.- Kirol-kudeaketarekin lotutako enpresa pribatu batekin duen harremanari dagokionez, inpugnatzaileak inolako funtsik gabeko espekulazioak egiten dituela adierazi behar dugu, egoera hori egiaztatzeaz gain, egiaz ez baitu inolako bateraezintasunik eragiten Federazioko lehendakari-postua betetzearekin. Zentzu horretan, zera adierazi behar dugu, Federazio baten gobernu-organotako kide izateko baldintzei buruzko 108. artikuluan, eta Zuzendaritza Batzordeetako kideen edo lehendakariaren bateraezintasunei eta debekuei buruzko 116. eta 117. artikuluetan adierazitakoari jarraiki –horiek guztiak Euskal Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuko artikulua dira-, debekuen 117. artikuluko c) eta d) paragrafoetan jasotzen denera bakarrik gerturatzen dela inpugnatzaileak adierazitakoa. Bertan hitzez hitz adierazten da Federazio bateko gobernu-organotako kideek guztiz debekatuta izango dutela:*



- Enpresen bitartez edo hirugarren pertsonen edo erakundeen bitartez kontratatuak egitea eurek zuzentzen duten kirol-federazioarekin berarekin. Autokontratatzeko debekuak ezkontideen, antzeko afektibitate harremanaz lotutako pertsonen eta ondorengoen nahiz aurrekoen enpresei eragiten die.

- Kirol-federazioaren ondarea erabiltzea edo federazioaren barruan duen postua ondareei loturiko abantailak lortzeko erabiltzea.

*Inpugnatzaileak adierazitakoa ez da jasotzen debeku horien artean eta, bere horretan, inpugnatutako hautagaitza ez onartzeko edo M.C.M. jauna gaitasungabetzeko arrazoirik eragingo ez lukeen egoera bat bakarrik adierazten da; ez da, inola ere, adierazitakoa egiaztatzen, eta, beraz, berak dioena susmo hutsa dela ulertzen dugu, egia edo gezurra izan daitekeen susmoa, baina, gaur egun, ez dago behar bezala frogatuta.*

Aurreko lerroketan adierazitako guztiagatik, **XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunak aurkeztutako inpugnazioa gutziz ezestea erabaki da.

*Ebazpen horren aurrean, errekurtsoa jarri ahal izango da Kirol Justiziaren Euskal Batzordean, zazpi egun balioduneko epean.»*

**Bosgarrena.**- Martxoaren 23an, errekurtsogileak beste errekurtso bat aurkeztu zuen Batzorde honetan.

*«Kontu-hartzaileak 2017ko martxoaren 16an bidalitako mezu elektronikoa jaso zuen -martxoaren 21ean irakurri nuena-, EKFAren HAUTESKUNDE BATZODEAK 2017ko martxoaren 3ko nire inpugnazioa ezesten zuena. Dena den, nire erreklamazioari emandako erantzuna atzeratu egin zenez, egindako erreklamazioa Kirol Justiziako Euskal Batzordeari helarazi zitzaion.*

*Halere, eskerrik asko erantzuteagatik eta erreklamazioa ezetsi izanaren arrazoiak adierazteagatik. Honekin batera, frogagarri gisa balio duten eta Hauteskunde Batzordeak M.C.M. jaunari dagokionez argudiatutakoa kontraesaten duten 3 dokumentu bidali ditut.*

*KIROL ERAKUNDEEN ERREGISTRO ZIURTAGIRIA bidaltzen dizut, bertan, ORTUPELLAKO ARTE MARTZIALEN klubeko lehendakaria dela adierazten baita.*

*Era berean, MERKATARITZA ERREGISTROAREN beste bat erantsi dut, hark behar bezala frogatzen baitu UZTAIAZ FORMACIÓN*



*SOZINETATE MUGATUKO administratzaile bakarra dela; bertan, UZTARIAK KUDEAKETAK SOZINETATE MUGATUKO administratzaile eta jabe bakarra dela jasotzen da, kirol-prestakuntzara eta kirolarekin lotutako mota guztietako jarduerak egitera xedaturik dagoen enpresa.*

*Bide batez, kontu-hartzaileak erabili duen argudioari kontra egin nahi diot, nik ez baititut zertan arrazoitu behar S.C.M. jaunaren bateraezintasunak. Hauteskunde Batzordeari dagokio hautagaiek aurkeztutako datuen egiazkotasuna eta horiek bateraezinak diren ala ez egiaztatzea, funtzio publikoak betetzen dituen kontu-hartzaile batek beti baitu sarbidea partikular batek izan ditzakeen erregistroetara.»*

Gainera, errekurtsioan hauteskunde-prozesuari buruzko beste gai batzuk planteatzen ditu, dokumentazio, dokumentuen kopia eta txostenen eskaera, adibidez.

**Seigarrena.**- 2017ko martxoaren 20an, hamar egun balioduneko entzunaldia eskaini zaie M.C.M. jaunari eta EKFAren Hauteskunde Batzordeari, eta azken espedientea eskatu zaio, hamabost egun balioduneko epean. Epeak amaitu ostean, Hauteskunde Batzorde horrek hainbat alegazio aurkeztu ditu.

### **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**Lehena.**- Errekurtsogilearen legitimitateari dagokionez, Bizkaiko Lurralde Federazioari dagokion erroldan teknikarien estamentuko kide gisa agertzen da, 11.527 zenbakiko lizentziarekin. Baldintza hori Kultura sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 21. artikuluan jasotzen da eta, haren bidez, hauteskunde-araudiak prestatzeko eta euskal eta lurraldeko kirol-federazioen hauteskundeak egiteko irizpideak ezartzen dira (aurrerantzean, hauteskunde-agindua), hautesle izateko eta, beraz, hauteskunde-prozesuan parte hartzeko.



**Bigarrena.**- Errekurtsoak jartzeko epeei dagokienez, eta hauteskunde-aginduaren 32. artikuluari eta EKFrekin Hauteskunde Araudiaren 28. artikuluari jarraiki, horiek epe barnean egin direla ondorioztatu da.

**Hirugarrena.**- Honako hau dio Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 57. artikulua: «57. artikulua. *Metatzea.* Prozedura hasten edo izapidetzen duen administrazio-organoak, prozedura hasteko modua edozein dela ere, erabaki dezake, ofizioz edo interesdunaren eskariz, prozedura hori metatzea oinarri bera edo lotura estua duten beste batzuekin, organo berak izapidetu eta ebatzi behar badu prozedura. Metatzeko erabakiaren aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu».

Kasu honetan bistakoa da bi errekurtsoen artean lotura zuzena dagoela eta egintza bera errekurritu dela, horiek gai berari buruzkoak direla eta argudio berak erabili direla.

Horrenbestez, horiek bateratzea erabaki da, bi errekurtsoak erabaki honen bitartez erantzuteko helburuarekin.

**Laugarrena.**- Euskal Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuko (aurrerantzean, Federazioen Dekretua) 116. eta 117. artikuluek, eta EKFrekin Hauteskunde Araudiko 20. artikulua honako hau diote inpugnazioaren arrazoiei dagokienez:

«116. artikulua. *Bateraezintasunak.*

...2. ***Kirol-federazio bateko lehendakari-kargua bateraezina da federazio horren baitako klub edo kirol-elkarte bateko lehendakari-karguarekin. Lehendakaritzaren titular den pertsonak, hain zuzen, klub edo kirol-elkarte bateko ordezkari gisa batzarrean egoteagatik aukeratzen badute, federazioko edo klubeko kargua aukeratu beharko du, eta ulertuko da klubeko karguari uko egiten diola, baldin eta ez badu berariaz bietako bat aukeratzen...***



...4. Kirol-federazio bateko zuzendaritza-kargua bateraezina da **erakunde bereko kontseilari edo aholkulari profesional izatearekin. Halaber, kirol-federazio bateko zuzendaritza-kargua bateraezina da kirol-erakunde berean zerbitzu profesionalak eskaintzearekin lan-harremanaren, harreman zibilaren edo merkataritza-harremanaren bidez.**

5. Kirol-erakundeetako zuzendariak erakunde horien estatutuetan edo arautegietan jasotako bateraezintasunak ere izango dituzte.

117. artikulua. Debekuak.

Kirol-federazioetako zuzendariak debekatuta dituzte honako hauek:

...b) **Hirugarren pertsonengandik edo erakundeengandik komisioak edo antzeko mozkinak jasotzea, kirol-erakundeak ondasunak edo zerbitzuak kontratatzearen truke...**

...d) **Enpresen bitartez edo hirugarren pertsonen edo erakundeen bitartez kontratatuak egitea eurek zuzentzen duten kirol-federazioarekin berarekin. Autokontratatzeko debekuak ezkontideen, antzeko afektibitate harremanaz lotutako pertsonen eta ondorengoen nahiz aurrekoen enpresei eragiten die.**

e) **Kirol-federazioaren ondarea erabiltzea edo federazioaren barruan duen postua ondareei loturiko abantailak lortzeko erabiltzea.**

f) **Dagokion kirol-federazioaren estatutueta edo arautegietako arauetan jasota dauden bestelako debekuak.»**

«20. artikulua. Federazioaren lehendakari izatea bateraezina da Klub, Kirol Elkarte edo Federazioaren Batzordeko kide den beste edozein pertsona juridikorekin. Lehendakari aukeratuz gero, hark lehendik zuen kargua utzi eta Federazioko lehendakari-kargua bakarrik mantendu beharko du.

Federazioaren Lehendakaritza bateraezina da, halaber, Klub, Elkarte edo beste erakunde bateko ordezkariarekin edo Federazioaren lizentzia duen beste pertsona juridiko baten ordezkariarekin. Lehendakaritza pertsona juridikoaren ordezkariari esleitzen bazaio, hark ordezkari hori laga beharko du.»

Errekurtsogileak aurkeztutako dokumentaziotik, honako hau egiaztatu da:

1. 2017ko martxoaren 16an, eta Euskadiko Kirol Elkarteen Erregistroak bidalitako ziurtagiriarekin bat etorritik, lehendakari Ortuellako Arte Martzialen





Klubeko lehendakaria dela. Klub hori Euskal Karate Fundazioan txertatuta dago (27. zenbakiko erregistroa).

Hori bateraezina da lehendakari-karguarekin. Dena den, ez da automatikoki jarduten. Federazioen Dekretuko 116.2. artikulua berak ahalbidetu egiten du, lehendakari hautatu ostean –horrenbestez, ez lioke hautagaitzari eragingo–, bi kargu horietako bat aukeratzea, eta klubeko karguari uko egiten diola ulertzen da, horietako bat berariaz aukeratzen ez badu.

Hauteskunde Araudiak ere termino berberak jasotzen ditu.

Horrenbestez, hautagai bat klub federatu bateko lehendakari izan daiteke baldin-eta, Federazioko lehendakari izendatzen dutenean, lehendakaritza horri uko egiten badio. Uko hori berariazkoa edo tazitua izan daiteke, baina, Batzorde honen arabera, behar bezala egiaztatu beharko da, Hauteskunde Batzordeari dagokion dokumentazioa aurkeztuz.

Ondorio horietarako, honako hau adierazi du Hauteskunde Batzordeak, alegazioak izapidetzeko orduan: «*Federazio honetan, Lehendakaritza-baldintza 2015ean eta bere borondatez laga zuela dioten agiriak daude, hark lehendakaritza bereganatu zuenean, alegia. Gainera, dokumentu eguneratuak daude eta, horietan, argi eta garbi ikus daiteke Ortuellako Arte Martzialen Klubeko lehendakari-kargu hori hirugarren pertsona batek bereganatu zuela.*

*Egoera hori idatzita ez geratu izana ez da inolako oztoporik izango, inskripzioa ez baita osagarria, organo eskudunak hartutako akordio baliagarria baizik».*

Zentzu horretan, aipatutako dokumentazioak federatu guztien eskura egon beharko duela esan behar da, hauteskunde-prozesuaren gardentasuna bermatzeko. Gainera, Erregistro publiko batean inskribatu izanak –kasu honetan, Kirol Elkarten Erregistroan– ez du eskubide inskribatua eragiten, baina ez inskribatu izanak eraginkortasuna kentzen du hirugarrenen aurrean.



Hori dela-eta, kasu honetan nahitaezkoa da erregistro-publizitatea, hirugarrenei bateraezintasunik ez dagoela bermatzeko.

2. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan jasotzen den moduan, hautagaia Uztiak Formación SL eta Uztiak Kudeaketa SL erakundeen bazkide bakarra eta administratzailea da, eta horien helburu sozialak kirol-jarduerarekin lotuta daude.

Zentzu horretan, ez dago Federazio bateko lehendakaria enpresa baten bazkide edo administratzaile izateko debekurik edo bateraezintasunik, haren xede soziala kirol-eremuan garatu arren.

Errekurtsogileak zenbait baieztapen egin ditu egoera horren inguruan, bere ustez, modu horretan hautagaiak informazio pribilegiatua bere enpresaren mesedetan bereganatu baitezake, eta hori egitean enpresen arteko lehia askearen printzipioa urratzen da, besteak beste. Hauteskunde Batzordeak 2017ko martxoaren 13ko ebazpenean adierazi zuen moduan, baieztapen horiek egintza zehatzetan oinarritu gabeko susmo hutsak dira, eta agintaldian zehar horiek frogatuz gero bakarrik eragin ahal izango lukete

bateraezintasuna eta kargu hori laga beharra, arestian aipatutako araudian zehaztutakoari jarraiki.

**Bosgarrena**.- Errekurtsuetan planteatutako gainerako gaiei dagokienez, 2017ko martxoaren 23ko errekurtsuaren 1. eta 2. puntuak ebatzita daude dagoeneko.

Gainerako eskaerei dagokienez, ez da ahaztu behar Kirol Justiziako Euskal Batzorde honi hauteskudearen arloan eman zaion eskumen bakarra Euskadiko Kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 138.b) artikuluan aipatzen dena dela, eta baita Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 3.b) artikulua ere, zeinak honela baitio:

*«Kirol Justiziako Euskal Batzordeak honako eskumen hauek ditu:*



(...)

b) *Kirol-federazioetako hauteskunde-batzarren erabakien aurka jarritako errekurtsuak aztertzea eta ebaztea.»*

Ondorioz:

1. Idazki horretako 3, 4 eta 6. puntuetan eskatutako kopiak organo eskudunari eskatu behar zaizkio, Hauteskunde Batzordeari, alegia.
2. 5. puntuan adierazitako hartu-agiria Kirol Zuzendaritzari eskatu behar zaio.
3. Era berean, Batzorde honek ez du 7. puntuan adierazitako txostena eskatzeko eskumena.

**Seigarrena**.- Dena den, eta KJEB honek errekurtsogile berak aurkeztutako 27/2017 zenbakiko errekurtsua balioetsi duenez eta, horrenbestez, EKfren errolda osatzen duten batzarkideen eta presidentearen izendapena baliogabetu egin behar denez, 28/2017 eta 31/2017 zenbakiko errekurtsoen helburua galdu egin da.

Ondorioz, egoera hori aitortzea eta horiek arrazoi bera dela-eta ezatea erabaki da.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, honako hau

## EBAZTEN DU

xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunak EKfren Hauteskunde Batzordeak 2017ko martxoaren 1ean hartutako erabakiaren kontra aurkeztutako errekurtsuak ezatea, «1. aktan» adierazten den moduan, horien helburua galdu izanagatik.



Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dezakete Kirol Justiziako Euskal Batzordean, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, betiere Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzaren 29a.

**JOSÉ LUIS IPARRAGIRRE MUJICA**

Kirol Justiziako Euskal Batzordearen presidentea